

DATA: 2012-04-19

FECHA: 19-04-2012

ORDUA: 18:00

HORA DE INICIO: 18:00

BUKAERA ORDUA: 20:00

HORA DE FIN.: 20:00

LEKUA: UDALETXEKO BATZAR ARETOA

LUGAR: SALA DE JUNTAS DEL  
AYUNTAMIENTO**BERTARATUTAKOAK:****ASISTENTES:**

- ✓ Maitane Maritorea (BILDU)
- ✗ M<sup>a</sup> Carmen Iribarren (UPN)
- ✗ M<sup>a</sup> Isabel Olave (UPN)
- ✓ Lohitzune Nuin (euskara teknikaria)
- ✓ Estebe Apezetxe (Bai Euskarari)
- ✓ Pedro M<sup>a</sup> Iriarte
- ✗ Elena Arretxea (AEK)
- ✗ Alberto Atxa (Herri Eskolak)
- ✗ Oianko Garde
- ✓ M<sup>a</sup> Carmen Irungarai (Xorroxin)
- ✓ Julen Mitxeltorena
- ✓ Arantxa Zelaia

**GAI-ZERRENDIA:**

1. UEMA: Bortziritako euskara teknikariaren aurkezpena.
2. TELP: Balorazioa.
3. Baztango herriek, elkarteek eta entitate kulturalak antolatutako kultur jarduerak diruz laguntzeko deialdia.
4. Baztango Euskalgintza: Euskaraz Bizi Nahi Dut Herri Lasterketa.
5. Galde-eskeak.

**ORDEN DEL DÍA:**

1. UEMA: *Presentación de su experiencia de uno de los técnicos de euskera de Bortzirriak.*
2. TELP: *Valoración.*
3. *Convocatoria de ayudas para los lugares, asociaciones y entidades culturales de Baztan que organizan actividades culturales.*
4. *Baztango Euskalgintza: Carrera popular "Euskaraz Bizi Nahi dut".*
5. *Ruegos y preguntas*

**ERABAKIAK:****ACUERDOS:**

1. UEMA: Bortziritako esperientzia.

1. UEMA: *Presentación de la experiencia de*

### **Bortziriak.**

Bortziritako euskara teknikariak eskualde horretako esperientziaren azalpena egin du. Aipatutakoaren laburpena bukaeran erantsi zaio akta honi.

*Uno de los técnicos de euskera de Bortziriak ha explicado su experiencia. Al final se adjunta el resumen de su exposición.*

Azalpena entzun eta gero, afera lasaitasunez hartu behar dela erabaki da. UEMAr buruzko lanketa antolatzeko plangintza bat egitea proposatu da, “Baztan euskararen arnagunea” dela abiapuntutzat eta oinarritzat hartuz, lanketa egiten hasi euskararekiko sentsibilizazio handien duten entitate eta elkarteekin, ondoren mezu hori gainerako esparruetara zabaltzen joteko. Epe luzerako plangintza izanen litzateke, bi urterako edo.

*Después de escuchar la presentación, se decide que este asunto debe tomarse con tranquilidad. Se propone realizar una planificación de cara a dar a conocer previamente el proyecto, basándolo en la idea de Baztan como espacio protegido del euskera, comenzar trabajando con las entidades o asociaciones de mayor sensibilidad hacia esa lengua, para después ir extendiéndola a otros ámbitos. Se trataría de una planificación a largo plazo, de unos dos años.*

### **2. TELP: Balorazioa.**

15 lagunek hartu zuten parte. Balorazioa positiboa izan da eta heldu den urtean antzeko jardueraren bat antolatzea proposatzen da.

### **2. TELP: Valoración.**

*Participaron 15 personas. Se ha valorado el taller positivamente y se propone organizar actividades de este tipo de cara al próximo año.*

### **3. Baztango herriek, elkarteek eta entitate kulturelek antolatutako kultur jarduerak diruz laguntzeko deialdia.**

Diru-laguntzak eskatzeko era bateratu da. Eskabide bakarra aurkeztu beharko da udal erregistroan eta ondoren bideratuko da euskara edo kultura aroletara. Eskabideak aurkezteko epea urte guztian egonen da zabalik.

### **3. Convocatoria de ayudas para los lugares, asociaciones y entidades culturales de Baztan que organizan actividades culturales.**

*Se ha unificado el modo de solicitar las ayudas. Se debe presentar una única solicitud en el registro municipal que después será canalizada a las áreas de euskera o cultura. El plazo para presentar las solicitudes permanecerá abierto durante todo el año.*

### **4. Baztango Euskaingintza: Euskaraz Bizi Nahi Dut Herri Lasterketa.**

Kontseilutik proposamen bat etorri da, heldu den irailaren 22an, 16:30ean, herri lasterketa bat antolatzeko, “Euskaraz Bizi Nahi Dut” lelopean, aldarrikapena eta

### **4. Baztango Euskaingintza: Carrera popular “Euskaraz Bizi Nahi dut”.**

*Propuesta de Kontseilua para organizar una carrera popular con el lema “Euskaraz bizi nahi dut” el próximo 22 de septiembre a las 16:30h. Además de reivindicativo, el*

Kontseiluarendako dirua biltzea helburu. Irurita edo Arraioztik Elizondorako ibilbidea egitea proposatu da. Halaber, 18 urtetik gorako parte-hartzaileek zerbait ordaintzea eta lasterketa lehiakorra izatea.

Aitzinetik zerbait antolatuko da jarduera honen berri emateko eta giroa berotzeko.

Informazio guztia bukaeran atxiki zaio akta honi.

*acto tiene también como objetivo la recaudación de dinero para Kontseilua. Se propone un recorrido dese Arraioz o Irurita hasta Elizondo. Además, se propone que las/os participantes mayores de 18 años paguen algo por participar y que la carrera sea competitiva para ello/as.*

*Previamente se organizará alguna actividad para promocionar la carrera.*

*Se incluye la información detallada al final.*

## **5. Galde- eskeak**

Euskara zinegotziak bi aipamen egin ditu: Alde batetik, eskaera jaso zuela komunikabideei ematen zaizkien diru-laguntzak urte bukaeran banatu beharrean urte hasieran banatzeko. Udal kontuhartzaileari galdetuta, ez dago horretarako arazorik. Beraz, urte hasieran eginen da banaketa eta ez, orain arte bezala, bukaeran.

Bertzetik, lore jokoak antolatzeko proposamena kultura batzordean egin zen eta hurrengo hezkuntza batzordean ere eginen da.

## **5. Ruegos y preguntas**

*La concejal de euskera ha comentado dos asuntos: por una parte, que recibió una solicitud para que las ayudas económicas destinadas a los medios de comunicación sean repartidas a principio de año y no a finales como se ha venido haciendo hasta ahora. Después de consultarlo con la interventora municipal, no existe ningún problema y por lo tanto, el reparto de estas ayudas se hará a principios de año y no a finales.*

*Por otra parte, comenta que se llevó la propuesta de organizar unos “lore jokoak” a la comisión de cultura y se llevará también a la próxima comisión de educación.*

HURRENGO BILERA: Ekainaren 14an, 18:00etan, Baztango udaletxean.

*PRÓXIMA REUNIÓN: 14 de junio, a las 18:00h, en el ayuntamiento de Baztan.*

## UEMARI BURUZKO BILERA BAZTANEN 2012-04-19

*UEMAn sartzeko ibilbidea (noiz sartu ziren, zein izan zen prozesua, aitzinetik lanketarik egin ote zen edo ez, egin bazen, nolakoa...etab.).*

### **Bortzirietako esperientzia.**

- Arantza. 1995.
  - UEMA eguna Arantzan egin zen 1998an.
    - Herrian giro aparta sortu zen UEMA egunaren antolaketaren inguruan.
      - Arduradun politikoak euskararen gaia erdigunean jartzeko balio.
      - Herritarrak kontzientzia hartzeko/pedagogia udalarekin harremana euskaraz izateko, eskaera (demanda).
        - Zenbait urtez, herritik autobusa ateratzen zen UEMA egunera joateko.
- Bera eta Etxalar. 2009.
  - Prozedura.
    - Euskara batzordean landu zen.
    - Tokiko hedabideetan.
    - Bilera ordezkariekin, UEMAn sartzeko bilera, bilera langileekin.
    - UEMA eguna Beran.
    - Bandoa.
- Igantzi eta Lesaka. 2012.
  - Prozedura Igantzi.
    - Euskara batzordean landu da.Bilera ordezkariekin, osoko bilkura.
    - Jendarteratzea.
      - Bideoa eskolako harrekin. Pagolizarra eta euskara.
  - Prozedura Lesaka.
    - Euskara batzordean landu da (birritan).
    - Bilduk hauteskunde programan barneratu.
    - Bilerak Bildurekin.
    - Asmoa:
      - Bilera ordezkariekin, osoko bilkura, eta bilera langileekin.
      - Jendarteratzea:
        - Hiru bilera (auzoka edo).
        - Ekainaren 23ko ekitaldiak. Erakusketa.
        - Tokiko hedabideak.
        - Udalaren gutuna.
        - Bideoa.

### **UEMAn egotea.**

- Euskarari lehentasuna.
- Hizkuntza politika aktiboa.
- Ekintza positiboa euskararen alde.
- Udal hizkuntza politikaren ranking-ean UEMAKo udalariak goi-goian.
  - Arantzak 8,7 puntu (12. postuan).
  - Berak 6,1 puntu (50. postuan).
  - Etxalarrek 8,1 puntu (22. postuan).
  - Igantzik 7,5 puntu (34. postuan).

- Lesakak 6,8 puntu (44. postuan).
- Baztanek 4,0 puntu (75. postuan).
- Bikoiztasunik ez. Elkarlana.
  - Makina bat udal (Bera, Oiartzun, Bermeo).

### **Transmisioa eta merkataritza.**

- UEMAREN eskaintza batez ere euskara zerbitzurik ez duten udalei eskainia.
- Baztango kasuan, bi arlo horiek aski ongi lantzen dira.
  - Kanpaina horien beharrik ez.
- Ekarpen osagarria: erraterako, txartela, irekia/itxita eta antzekoak komertzio guztiei eskaintzen diete, ez soilik ziurtagiria dutenei.

*Udaleko langileen eguneroko lan praktikoari dagokionez, zer ekarriko du UEMAK? Argi eta gerbi gelditu zen itzulpen lanik ez duela egiten, bai ordea dokumentaziorako datu-base bat sortzen ari dela. Gehiagorik? Langile gisa, eguneroko lanari begira eta zentzu praktikotik, zein onura ekartzen du UEMAK?*

### **UEMA.**

- Aitzindaritza.
- Udalak (eta ordezkariak) hizkuntza irizpideak barneratu. Portaera eredugarria.
- Udalerri euskaldunen esperientzia eta elkarlana Baztanen eskura. Babesa. Elkarlana.
  - Hemengo arazoak ez dira bakarrik hemengoak. Beste tokietako esperientziak bertan aplikatzeko aukera.
- **UEMAREN EKARPENA BETE-BETEAN**
- Euskara plana. Udalean bere osotasunean euskararen erabilera normalizatzeko plana.
  - Egoeraren azterketa edo diagnostia.
    - 1.Ezagutza.
      - Udal ordezkariak eta langileak.
    - 2.Erabilera.
      - Kanpoko harremanak. Herritar eta bertzelako erakundeekin.
        - Ahoz zein idatziz.
          - Gehiena edo asko gaztelania hutsez bideratzen da.
        - Barneko harremanak (bilerak, batzordeak barne).
          - Ahoz zein idatziz.
      - 3.Itzulpenak.
        - Kalitatea, irizpideak.
      - 4.Langileen prestakuntza.
      - 5.Tresna eta aplikazio informatikoak.
      - 6.Webgunea eta intratent.
      - 7.Hizkuntza paisaia.
      - 8.Iragarkiak eta publizitate kanpaina.
      - 9.Diru laguntzak.
      - 10. Kontratazio administratiboa.
        - Gero eta garrantzia handiagoa.
- Plana. Horietako bakoitzean hobetzeko, aitzinera egiteko neurriak.
- **UEMAko hizkuntza irizpideak.** Euskarari lehentasuna, euskara hutsez funtzionatzea, herritarrak motibatzea euskaraz gero eta gehiago eska dezaten, herri erakundeei eta

pribatuei euskarazko harremana nahi dugula gogoraraztea, hizkuntza eskubideak zaintzea, udal ordezkariak lider eredugarriak izatea, euskararekiko arduraz jokaten dutenak, etab.

- Nafarroako Gobernua.
  - LexNavarra, turismoa, etab.
- Hornitzaileekin lana, Basarteak, etab.
- **Planaren abiadura.** Norberak erabaki. Hasierako egoera edo abiapuntua zein den. Gradualtasuna.
- UEMAREN barne, hizkuntza politika ausart eta eraginkorra. Bidea egiteko prozedura eta bidelagunak: hobekiago eta azkarrago. Sartzeak **konpromisoa** dakar. UEMAK lan egiten du, eta lan eginarazten du (planean erabakitzen dena, eta plana udalak erabakitzen du, alde horretatik, bere buruari jarritako etxeko lanak dira).

**UEMAN ez sartuta** ere: euskararen erabilera planifikatu beharko duzue. Horrek dedikazio bat eskatzen du, eta ez nolana hikoia. Lan orduen kostua kuantifikatu daiteke. Teknikariak badu nahikoa lan gizarte esku hartze programekin. Gainera, UEMAK eskatzen du jarraipena, eta UEMAKO teknikariarekiko elkarlana.

**UEMAREN zerbitzuari buruz.** Guk ezagutzen duguneraino, zerbitzua ona da, dinamikoa, eta erantzuten dute (irtenbideak proposatu, jarraibideak eta aholkuak eman, ereduak, etab.). Plana onartu eta abian jarri arte, bilerak maizago. Behin martxa hartuta, urtean bitan jarraipena (bi teknikariak, UEMAKO 3 zinegotziak, udal langileen burua, euskaltzalea, etab.).

*Euskararen erabilera/kontzientziari dagokionez, jendartearen aldaketarik somatu da/duzue zuen herriak UEMAN sartu zirenetik? Zertan somatu da? Noiztik?*

Ez da erraza erantzuten, ez dugu ikerketarik egin hori jakiteko, ez dugu datu zehatzik.

**Erabilerari dagokionez**, plana betetzen den neurrian, bai. Adibide batzuk:

- Herritarren eskaera guztiei idatziz edo euskaraz, edo bietara erantzunda.
- Udalaren komunikazioetan euskara hutsez, edo euskara lehenetsiz (bandoa, kartela, etab.).
- Webgunean euskarazko atal lehenetsita, eta gaztelaniazkoa informazioa bi hizuntzetan jarrita.
- Aplikazio informatikoa euskaratuta.
- Hizkuntza paisaia euskaratuta.
- Kontratazioan euskarazko zerbitzua baldintza bezala jarrita (lege aholkularitza, arkitektoak, etab.).
- Zerbitzu eta lan hizkuntzan erabilera handitzen da, baina daturik ez dut.

**Jendartearen** euskaraz eskatzeko ohitura indartzen da, aukerak zabaltzen zaizkio euskaldunari, etab. Plana aplikatzerakoan hori neurtu eta ebaluatu egiten da.

- Adi:
  - Sarrerako erregistroan, euskarazko sarrerak hazi ote diren.
  - Iragarki taulan, iragarki guztiak gutxienez euskaraz ote dauden.

**Udal agintarien** aldetik, euskara zinegotzi bakar baten ardura edo lana baino zerbait gehiago: denon ardura da.

Arantzan, 2012ko apirilaren 19an

Urko Ikardo Enparan  
Bortziritako euskara teknikaria

## **EUSKARAZ BIZI NAHI DUT LASTERKETA HERRIKOIA**

Berriki, Kontseiluak “Euskaraz bizi nahi dut!” ildo herriratzeko konpromisoa hartu du. Dinamika honen bidez, Euskararen normalizazioari beharrezkoa duen bultzada herrikoia eman nahi zaio. Horretarako, ekimen ezberdinak antolatzen goaz. Haien artean, egun eta ordu berean Euskal Herriko auzo eta herri ezberdinetan antolatu nahi ditugun lasterketak leudeke.

Hau guztia aurrera eramateko, lehenik eta behin horrelako gauzak antolatzen eskarmentu handia duzuenengana jo dugu, gu horrelako gauzak antolatzen berriak garelako eta “Euskaraz bizi nahi dut!” dinamika pertsona eta eragile ezberdinen parte-hartzean oinarritu nahi dugulako. Milesker alde aurretik, beraz, zuen arreta eta prestutasunagatik, hori gabe hau guztia antolatzea oso zaila bailitzake. Hortik aurrera, norberaren ekarpenetarako ateak, zabal-zabalik daude: aholkularitza lanetatik hasita antolakuntza lanetaraino... Logikoki, hainbat ardua edota eginkizun, guregain hartuko genituzke (euskarriak, sariak...) eta tokian tokiko beharren baitan, elkarlanerako erabateko prestutasuna daukagu.

### **HELBURUAK**

Helburua ahalik eta lasterketa gehien antolatzea da, non, adin ezberdinetako denetariko pertsonak parte hartuko duten. Lasterketon eskutik, “Euskaraz bizi nahi dut!” irudikatzen duen argazki ahaltsu bat proiektatu nahi da.

### **XEHETASUNAK**

Data: 2012ko irailak 22a

Ordua: 16.30

Lasterketa mailak (lehiakortasunik gabeko lasterketa parte hartzaileak antolatu nahi dira):

Txikiak ( 0-6 urte): 200 metro

Infantilak ( 7-11 urte): 500 metro

Jubenilak ( 12-17 urte): 1000 metro

Helduak ( +18 urte): 5000 metro

### **EZAUGARRIAK:**

- Lasterketek ez dute sailkapenik izango.

- Izen ematea 10€ ingurukoa izango da eta horren bueltan partaide oro eskubide hauen jabe izango da:

o Lasterketan irteteko zenbakia edo dortsala.

o Oparia.

o Bukatu eta gero egingo den zozketarako zenbakia.

- Izen ematea aurretik internet bidez egin ahal izango da edo eta egunean bertan.

### **ANTOLATZAILE / LAGUNTZAILEAK LOTU BEHARREKOA**

- Lasterketa egunerako ibilbidea lotu eta eguneko kudeaketa eraman.

- Irteera / helmuga euskarriak, hesiak eta zinta jarraitua.

- Esataria.

- Lasterketa aurreko kartelak itsatsi herrian.

- Argazkiak ateratzeaz arduratuko dena bilatu.

- Ekonomikoki laguntzeko prest egon daitezkeen informazioa pasatu.

- Aurreko edozein atal aurrera ateratzeko arazoren bat aurreikusiz gero, esan eta gu saiatuko gara.

### **GUK BERMATUKO DUGUNA**

- Lasterketa egunean arazorik egon ez dadin beharrezko baimenak lortu ( udaletxea ).
- DYA edo Gurutze Gorria han izatea bermatu.
- Aseguruak ondo lotuak daudela bermatu.
- Kartelen ekoizpena.
- Opariak, dortsalak...

Zuen laguntza ezinbestekoa dela azpimarratuz, balio eta eskertze horretatik, jaso itzazue gure agurrik zintzoenak!...

Martin Ugalde Kultur Parkea  
20140 Andoain ( Gipuzkoa) Gaba: 615094491



